


**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**



**Bakioko Udala**

**Ayuntamiento de Bakio**

**2020**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	9
III.2 Langileria .....	9
III.3 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	9
III.4 Kontratazioa.....	9
III.5 Beste batzuk .....	10
IV. FINANTZAREN ANALISIA .....	11
V. URTEKO KONTUAK.....	14
ERANSKINAK .....	17
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera.....	17
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	17
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	19
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	20
A.5 Pertsonaleko gastuak.....	21
A.6 Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa .....	23
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	24
A.8 Inbertsio errealak eta aktibo ez-korrontea.....	24
A.9 Zorpetzea .....	25
A.10 Zordunak .....	26
A.11 Hartzekodunak .....	27
A.12 Hirigintzako jarduerak eta planeamendua.....	27
A.13 Kontratazioa .....	29
ALEGAZIOAK.....	31



ABREVIATURAS .....	33
I. INTRODUCCIÓN .....	35
II. OPINIÓN.....	36
II.1    Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	36
II.2    Opinión sobre las cuentas anuales .....	36
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	37
III.1    Presupuesto y contabilidad .....	37
III.2    Personal.....	37
III.3    Transferencias y subvenciones concedidas .....	37
III.4    Contratación .....	37
III.5    Otros .....	38
IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....	39
V. CUENTAS ANUALES .....	42
ANEXOS.....	45
A.1    Naturaleza del ente fiscalizado.....	45
A.2    Presupuesto y contabilidad .....	45
A.3    Impuestos, tasas y otros ingresos .....	47
A.4    Ingresos por transferencias y subvenciones .....	48
A.5    Gastos de personal .....	49
A.6    Compra de bienes corrientes y servicios .....	51
A.7    Transferencias y subvenciones concedidas .....	52
A.8    Inversiones reales y activo no corriente .....	52
A.9    Endeudamiento .....	53
A.10    Deudores .....	54
A.11    Acreedores .....	55
A.12    Actuaciones urbanísticas y planeamiento .....	55
A.13    Contratación .....	57
ALEGACIONES .....	59



## LABURTZAPENAK

2/2020 ED-Legea 2/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 21eko, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituena.

AASS	Arau Subsidiarioak.
AMAS	Autonomia Sistema eta Mendekotasunari Arreta.
AO	Administrazio Orokorra.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
FA	Foru Araua.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HBGZ	Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HHS	Hiri-hondakin solidooak.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinen gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
TTEE	Toki entitateak.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Bakioko Udalaren 2020ko Kontu Orokorraren fiskalizazio-lana mimitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarría den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren balantzea, ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, baita aurrekontuaren likidazioa ere.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Bakioko Udalak 2.676 biztanle zituen 2020ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta udalaz gaindiko honako entitate hauetan parte hartzen du:

- Mungialde Mankomunitatea, Gizarte zerbitzuak (gizarte zerbitzuak, mendekotasunen prebentzioa eta berdintasuna).
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (uraren ziklo osoaren kudeaketa).
- Haurreskolak Partzuergoa (haurtzaindegien kudeaketa).
- Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) (euskladuntzea).



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

- Udalak 2021ean lanpostu guztien balorazioa onartu zuen, 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginezko ondorioekin, eta horrek 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 3.2 artikuluak baimendutakoaz gainetiko soldatu-igoera gehigarria eragin zuen; ordea, espedienteetan ez da behar bezala egiaztatu ordainsari-egokitzapen bat dela, izaera berezikoa eta salbuespenezkoa, eta ezinbestekoa dela lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langile-kopurua aldatzeagatik edo lanpostuari ezarritako helburuen betetze-mailagatik, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorreko buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 19.7 artikuluak agintzen duen moduan (ikus A.5).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan zehaztu den ez-betetzea alde batera, Bakioko Udalak zuzentasunez bete du 2020ko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Hona hemen Udalaren Gastu Orokoren Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak 2020ko abenduaren 31n:

ERANSKINA KONTZEPTUA	GODG	AKTIBOA	Euroak milakotan	
			PASIB.	OND. GARBIA
A.2 Aparkal. konpontzeag. kalte-ordaina, zorpetua eta kontab. gabea.....	(78)	-	78	(78)
A.4 Finantzaketa atxikiaren soberakinaren kalkuluaren zuzenketa .....	84	-	-	-
A.10 Aplikatzeko dauden ordainketen saldoak, zuzendu beharrekoak.....	(279)	(56)	-	(56)
GUZTIRA	(273)	(56)	78	(134)

- Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik jakiteko Udalaren 2020ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko saldoek egiazko egoera ondasunen eta eskubideen egiazko egoera islatzen dutela, ezargarriak zaizkien balorazio-printzipioei eta -arauei jarraikiz (ikus A.8).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Bakioko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztieta erakusten du 2020ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, legedian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### **III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

- 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen behin betiko onartu 2019ko abenduaren 31 baino lehenago, ezargarria zion aurrekontuko araudiak agintzen duen moduan (ikus A.2).
- Udalaren aurrekontu-plantillak ez ditu kreditu zuzkidurak oinarrizko ordainsari, lanpostu mailako osagarri eta berariazko osagarriaren arabera antolaturik zerrendatzen.
- Kobratzeko dauden aurrekontuko saldo nagusiak banaka aztertu eta gero ondorioztatu da horietako batzuk, 295.090 euro guztira, baliogabetu egin beharko liratekeela, ez baitagozkie zor eskagarriei (ikus A.12).

#### **III.2 LANGILERIA**

- Idazkaritza bigarren mailako modura sailkatua duten udaletan Idazkaritza eta Kontuhartzailetzako bi postu bereizi existitu behar dira, nazio mailan jarduteko gaituta dauden toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeak, eta gainera, Diruzaintza izeneko lanpostu bat existitu behar da. Udalaren Lanpostu zerrendak Idazkari-kontuhartzailearen lanpostu bakarra besarkatzen du eta ez du Diruzaintzakoa aurreikusten.
- Udalak errefortzuko aldi baterako langileak kontratatzen ditu, baina ez dago jasota inolako hautaketa-prozedurarik egin denik.

#### **III.3 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK**

- Ez dira betetzen Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari informazioa emateko obligazioak.

#### **III.4 KONTRATAZIOA**

##### **Kontratazio-espedienteak (ikus A.13)**

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden bost kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- Guztira 597.766 euroen kanonarekin esleitutako kontratu batean (4. expedientea), hobekuntzak esleipen-irizpidetzat hartzen dira, baina ez dira behar hainbat zehazten.
- Aipatutako kontratuaren tramitazioa (4. expedientea) presakotzat jo da, eta ez dago behar bezala arrazoituta.
- Guztira 300.401 euroan esleitutako bi kontratutan (1 eta 2 zenbakidun expedienteak) pertsona bera da kontratazio-atala eta kontratazio mahaiko burua; horrek ez du egitekoen



ezinbesteko banaketa errespetatzen. 597.766 euroko kanon baten bidez esleitutako beste kontratu batean (4. espedientea), kontratacio-mahaiaren osaera ere ez da zuzena, udaleko idazkari-kontuhartzaileak idazkari gisa eta, aldi berean, bokal gisa jardun baitu.

- 123.658 euroan esleitutako kontratu batean (2. espedientea), hasierako esleipendunak uko egin dio kontratua formalizatzeari, eta ez zaio lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatu, BEZik gabe, zigor gisa.
- Lau kontratu esleitzeko ebazpenek (1, 2, 4 eta 5 zenbakidun espedienteak), Udalari 898.167 euroko kostu garbia eragiten diotenek, ez dute aplikatzeko den hitzarmen kolektiboa buruzko informaziorik jasotzen.
- 2 milioi euroan esleitutako kontratu baten prestazioetako bat (3. espedientea) 5 hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin entregatu zen, 17 asteko epe baten gainean, eta ez dago jasota epea luzatzea edo, hala badagokio, kontratistari zigorrik ezartzea onartu denik.
- 176.754 euroan esleitutako obra-kontratu baten bi epe-luzapenak (1. espedientea), hilabeteko eta 3 astekoa, epez kanpo onartu dira, hasierako exekuzio-epea (2 hilabete) eta luzatutakoa, hurrenez hurren, amaitu ondoren.

### **Administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastua**

- Kontratu txikiko prozeduraren bidez egindako kontratazioen berrikuspenean ikusi dugu bi prestaziotan, 59.259 eurorenak, gutxienez prozedura sinplifikatu laburtuen izapidea baliatu behar zela, lanpostuak deskribatu, aztertu eta baloratzeko eta gasa hornitzeko zerbitzuei dagozkienak, 35.635 euro eta 23.654 euro, hurrenez hurren.
- Halaber, aholkularitza juridikoko eta-hirigintzako zerbitzuei dagozkien gastuak hauteman dira, 32.913 euro eta 24.431 euro hurrenez hurren, eta horien kontratuengandik amaituta zuten.

### **III.5 BESTE BATZUK**

#### **Ondarea eta ondasun-zerrenda**

- Udalak ez du Udalatzak onartutako ondasun eta eskubide guztien inbentarioan, ez eta Lurraren Ondare Publikoa osatzen duten ondasun eta baliabideenik ere.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua:

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2018 (*)	2019 (*)	2020	2018	2019	2020
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	1.990	2.103	2.064	753	783	771
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	2.049	2.119	1.853	775	788	693
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	380	328	324	143	122	121
<b>A. Sarrera korronteak.....</b>	<b>4.419</b>	<b>4.550</b>	<b>4.241</b>	<b>1.671</b>	<b>1.693</b>	<b>1.585</b>
Pertsonaleko gastuak (1. kap.) .....	1.207	1.237	1.280	457	460	478
Ondasun korronteen erosketa eta zerbitzuak (2. kap.) .....	1.566	1.980	1.848	592	737	691
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	128	140	138	48	52	52
<b>B. Funtzionamendu-gastuak .....</b>	<b>2.901</b>	<b>3.357</b>	<b>3.266</b>	<b>1.097</b>	<b>1.249</b>	<b>1.221</b>
Aurrezki gordina (A-B).....	1.518	1.193	975	574	444	364
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	29	20	18	11	8	7
<b>Emaitzia korrontea.....</b>	<b>1.489</b>	<b>1.173</b>	<b>957</b>	<b>563</b>	<b>436</b>	<b>357</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.) .....	711	156	117	269	58	44
<b>Aurrezki garbia.....</b>	<b>778</b>	<b>1.017</b>	<b>840</b>	<b>294</b>	<b>378</b>	<b>313</b>
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	15	-	340	6	-	127
Jasotako kapital transferentziak (7. kap.).....	591	95	513	223	36	192
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	652	1.051	267	246	391	100
- Emandako kapital-dirulaguntzak (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitalezko eragiketen emaitza .....	(46)	(956)	586	(17)	(355)	219
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	1.443	217	1.543	546	81	576
Diruzaintza geldikina .....	3.745	3.455	4.805	1.415	1.285	1.796
GODG .....	1.526	1.792	2.440	577	667	912
Zorpetzea.....	1.056	900	783	399	335	293

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera korronteak:** 2019an % 3tik gora igo dira aurreko ekitaldiaren aldean eta 2020an % 7 inguruko beheraldia erregistratu dute; honenbestez, aztertutako aldian guztira % 4 inguruko bariazio negatiboa izan dute. Hona hemen aldaketa azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** 2019an, diru-sarrera korronteek baino hazkunde handiagoa izan dute, eta 2020an, berriz, jaitsiera neurritsuagoa. Honela, bada, aztertutako aldiaren bilakaera, guztira, positiboa izan da, % 4 inguruko igoerarekin. Hala ere, zehaztu behar da hori, hein handi batean, EIOERi dagozkion diru-sarreren bilakaerari zor zaiola. Ondorio hori kenduz gero, 2019an diru-sarrerek izandako igoera konpentsatu egiten da 2020an izandako murrizketarekin, eta ez da ia aldaketarik izan aztertutako aldiaren hasieraren eta amaieraren artean aitortutako eskubideen kopuruan.
- **Transferentziak eta dirulaguntza korronteak:** Diru-sarrera horiek % 3tik gorako igoera izan dute 2019an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, nahiz eta 2020an izandako jaitsieraren ondorioz, aztertutako aldiaren guztizko bariazioak % 10 inguru egin duen behera. Bilakaera horretan eragiten dute, bereziki, Udalkutxatik datozen diru-sarrerek,



aztertutako hiru ekitaldietan kapituluko diru-sarrera guztien % 95 egiten baitute, bai eta, neurri txikiagoan, Lanbidetik enplegua sustatzeko jasotako dirulaguntzek ere.

**Funtzionamendu-gastuak:** % 13 inguru egin dute gora aztertutako aldian eta gorakada nagusia 2019ko ekitaldian gertatu da, izan ere 2020an gastuak % 3 egin du behera aurreko ekitaldiaren aldean. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluen arabera:

- **Pertsonaleko gastuak:** 2019ko eta 2020ko ekitaldietan % 2ko eta % 3ko igoerak baino zertxobait handiagoak izan dira, hurrenez hurren, eta aldi osoko bariazioa guztira % 6koa izan da. 2020an izandako gastu-igoera Covid-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz eta funtzionarioak ordezkatzenko errefortzuko langileak kontratatzearen ondorioz gertatu da. Adierazitako ekitaldian kontabilizatutako gastuei ez zaie soldatu igoera gehitu (ikus A.5).
- **Ondasun korroneen eta zerbitzuen kontratazioa:** Gastu hauek 2019an % 26 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean, nahiz 2020an % 7 jaitsi diren; honenbestez, aztertutako aldian % 18ko igoera izan dute. 2019an izandako igoerari dagokionez, eragin berezia izan du udal-kirdegiaaren kudeaketa integralerako kontratuari lotutako gastuak -2018ko abuztuan esleitu zen- (ikus A.13), bai eta, neurri txikiagoan, bide publikoen eta udal-eraikinen kontserbazio- eta mantentze-gastuak ere. 2020ko ekitaldiari dagokionez, jaitsierarik nabarmenena jaietako lotutako gastuei dagokie.
- **Transferentziak eta dirulaguntza korroneak:** Kontzeptu horrek eragindako gastuak aurreko ekitaldiaren aldean % 9 egin du gora 2019an, nahiz eta 2020an gertatutako jaitsiera arinak aztergai dugun aldiaren guztizko igoera apaldu eta % 8an jarri duen. 2019ari dagokionez, gastuaren hazkundean eragin handiena duen kontzeptua Mungialde Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ekarpenei dagokie. 2020an, ekarpen horiek 2018ko mailara itzuliko dira, eta, gainera, udalerriko elkarteei eta jaiet ematen zaizkien dirulaguntzak asko murriztu dira, baina hori guztia ia berdindu egiten da Covid-19ak eragindako krisiak sortutako ezohiko laguntzei lotutako gastuekin (ikus A.7).

**Aurrezki gordina eta aurrezki garbia:** Bi magnitudeen saldoa positiboa da aztertutako aldiko hiru ekitaldietan, nahiz eta bilakaera desberdina izan duten; izan ere, nahiz eta lehenengoak beheranzko joera izan, aurrezki garbiak gora egin du aldi horretan, zorrari lotutako gastuen murrizketaren ondorioz, eta 2018ko ekitaldiko sarrera arrunten % 18 izatetik 2020ko sarrera arrunten % 20 izatera igaro da.

**Kapital-eragiketen emaitza:** Magnitude honek saldo negatiboa erakutsi du aztertutako aldiaren lehenengo bi ekitaldietan, baina balore positiboa erregistratu du 2020an, hirigintzako diru-sarreren (ikus A.12) eta inbertsio errealen murrizketaren eraginez.. Adierazitako lehenengo bi ekitaldietan, sortutako aurrezki garbiak kapital-eragiketen defizita estaltzen du.



**Eragiketa ez-finantzarioen emaitza:** Beherapen esanguratsua izan zuen 2019an eta igoera, berriz, 2020an; horren ondorioz, aztertutako aldian % 7ko igoera izan da.

**GODG:** Aztertutako aldian goranzko bilakaera erakutsi du, % 17ko eta % 36ko igoerak izanik 2019ko eta 2020ko ekitaldien, hurrenez hurren, eta horren ondorioz guztizko aldakuntza % 60koa izan baita. Esan behar da, gainera, HKEE honek proposatutako doiketak aintzat hartuz gero, 2020ko ekitaldi itxieran GODG 2,2 milioi eurora murritzuko litzatekeela (ikus II.2 atala).

**Zorpetzea:** Zorpetzeak % 26 egin du behera aztertutako aldian, egindako amortizazioen ondorioz.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** 2020ko azaroaren 3ko akordioaren bidez, BFAk erabaki zuen 2020ko eta 2021eko ekitaldiarako zerga-arauak etetea, baina indarrean mantentzea 2012. eta 2013. urteetako hornitzaleei ordaintzeko foru-arauak betez egin ziren zorpetzeen ondorioz idatzitako doikuntza-planak. 2012ko abenduan, Udalak aipatutako doikuntza-planetako bat onartu zuen, 2014an aldatu zena, eta horren helburua zen bere zorraren bolumena % 60tik behera kokatzea 2019. urtean eta % 0an 2027an. Lehen aipatutako akordioan xedatutakoa aplikatuz, planak 2020ko ekitaldian indarrean jarraitzen zuenez, udalaren kontu-hartzaitzako atalak txostenak egin zuen, eta honako hau egiaztatu zuen Udalaren aurrekontuaren likidazioari dagokionez:

- Diru-sarreren eta gastuen egikaritza globala planak aurreikusitakoa da.
- Zor-maila aurreikuspenen azpitik dago.
- Aurrekontu-egonkortasuna bete da.

Jasota dago, halaber, Udalak onartutako doikuntza-plana 2020ko ekitaldian betetzeari buruzko BFAren aldeko txostena.

**Ondorioa:** Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du eta behar hainbateko baliabideak ditu ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

## V. URTEKO KONTUAK

### 2020KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	AURREKONTUA			ESKUB.	KOBR.	GABEA	% EGIK.
	ERANSK.	HASIERAK.	ALDAK.BEHIN BET.				
1. Zerga zuzenak.....	A.3	1.103	-	1.103	1.155	1.133	22 % 105
2. Zeharkako zergak.....	A.3	75	-	75	129	129	- % 172
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	800	-	800	780	671	109 % 98
4. Transferentzia korronteak .....	A.4	2.077	33	2.110	1.853	1.839	14 % 88
5. Ondare-sarrerak .....	A.8	327	-	327	324	4	320 % 99
6. Inbertsio errealen besterentzea.....	A.12	-	340	340	340	-	340 % 100
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	-	593	593	513	94	419 % 87
8. Aktibo finantzarioak .....		4	1.268	1.272	-	-	- E/E
<b>SARRERAK, GUZTIRA</b>		<b>4.386</b>	<b>2.234</b>	<b>6.620</b>	<b>5.094</b>	<b>3.870</b>	<b>1.224 (*) % 95</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulatzerakoan Diruzaintza geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.	GABEA	% EGIK
	ERANSK.	HASIERAK.	ALDAK. BEHIN BET.				
1. Pertsonaleko gastuak.....	A.5	1.435	3	1.438	1.280	1.251	29 % 89
2. Ondasun korronteko eta zerbitz. gast....	A.6	2.029	88	2.117	1.848	1.734	114 % 87
3. Gastu finantzarioak .....		16	2	18	18	18	- % 100
4. Transferentzia korronteak.....	A.7	173	80	253	138	125	13 % 55
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabekoak.....		71	(71)	-	-	-	- E/E
6. Inbertsio errealak.....	A.8	547	2.116	2.663	267	265	2 % 10
9. Pasibo finantzarioak .....	A.9	115	16	131	117	117	- % 89
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>		<b>4.386</b>	<b>2.234</b>	<b>6.620</b>	<b>3.668</b>	<b>3.510</b>	<b>158 % 55</b>

### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIERAKO	KOBR./	AZKEN
	ERANSK.	ZORRA	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak .....	A.10	2.099	76
Ordaintzeko dauden saldoak .....		227	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(76)</b>

### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide aitortu garbiak.....	5.094
Obligazio aitortu garbiak .....	3.668
<b>EKITALDI ARRUNTAREN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>1.426</b>
<b>EKITALDI ITXIEN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>(76)</b>
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratzeak .....	793
GODG bidez finantzatutako gastuak.....	336
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>893</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

DIRUZAINTEZA GELDIKINA	Euroak milakotan
<b>FUNTS LIKIDOAK (A)</b>	<b>2.035</b>
<b>KOBRATZEKO DAUDEN SALDOAK 12/31N (ikus A.10) (B)</b>	<b>2.842</b>
Indarreko ekitaldiko aurrekontuko zordunak .....	1.224
Ekitaldi itxietako aurrekontuko zordunak.....	1.618
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	-
<b>ORDAINTZEKO DAUDEN SALDOAK 12/31N (ikus A.11) (C)</b>	<b>317</b>
Indarreko ekitaldiko aurrekontuko hartzekodunak .....	158
Ekitaldi itxietako aurrekontuz kanpoko zordunak.....	-
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	159
<b>APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (D)</b>	<b>245</b>
Aplikatzeko dauden egindako kobrantzak (ikus A.11).....	57
Aplikatzeko dauden egindako kobrantzak (ikus A.10).....	302
<b>DIRUZAINTEZA GELDIKIN GORDINA (F=A+B-C+D)</b>	<b>4.805</b>
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoa (ikus A.10) .....	1.545
Finantzaketa lotua duten gastuetarako geldikina .....	820
<b>GODG</b>	<b>2.440</b>
 <b>ZORPETZEA 2020.12.31N (ikus A.9)</b>	 <b>783</b>

EGOERAREN BALANTZEAK 2020 ETA 2019KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan			
	ERANSK.	2020	2019		ERANSK.	2020	2019
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>39.657</b>	<b>39.390</b>		<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>42.096</b>	<b>40.296</b>	
Ibilgetu ukiezina .....	A.8	3.100	3.049	Ekarritako ondarea .....	(312)	(312)	
Ibilgetu materiala .....	A.8	36.445	36.229	Sortutako ondarea .....	41.029	39.679	
LOP.....	A.8	103	103	Dirulag. emaitzetara egozteke .....	1.379	929	
Epe luzeko inbertsio finantz.....	A.8	9	9	 <b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	 <b>A.11</b>	 <b>677</b>	 <b>783</b>
				Epe luzeko zorrak.....	677	783	
 <b>AKTIBO KORRONTEA</b>	 <b>3.630</b>	 <b>2.221</b>		 <b>PASIBO KORRONTEA</b>	 <b>A.11</b>	 <b>514</b>	 <b>532</b>
Zord. eta kобр. bst knt b.....	A.10	1.259	764	Epe lab. zorrak.....	208	212	
Epe motzeko inbertsio finantz....	A.10	336	(4)	Hartzed. eta ordain. bst knt b.....	306	320	
Eskud. eta best. akt. baliok.....	(*)	2.035	1.461				
 <b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	 <b>43.287</b>	 <b>41.611</b>		 <b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>	 <b>43.287</b>	 <b>41.611</b>	

(\*) 2020ko ekitaldi itxierako saldoa ia oso-osorik kontu korronteetako gordailuei dagokie, eskudiruko 742 euro izan ezik.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

	Euroak milakotan	
	2020	2019
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak .....	2.262	1.973
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak .....	1.917	2.162
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa .....	-	-
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....	438	463
<b>KUDEAKETA KORRANTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>4.617</b>	<b>4.598</b>
Pertsonaleko gastuak.....	(1.284)	(1.246)
TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK.....	(138)	(140)
Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk.....	(1.844)	(1.949)
Ibilgetua amortizatzea .....	-	-
<b>KUDEAKETA KORRANTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(3.266)</b>	<b>(3.335)</b>
<b>KUDEAKETA KORRONTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>1.351</b>	<b>1.263</b>
Korronteak ez diren beste partida batzuk .....	1	-
<b>ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>1.352</b>	<b>1.263</b>
Sarrera finantzarioak .....	-	-
Gastu finantzarioak .....	(18)	(21)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....	92	263
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>74</b>	<b>242</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>1.426</b>	<b>1.505</b>



## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA

Bakioko Udalak tokiko entitate bat da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Aipatutako legeek beren artikuluetan udalek ematen dituzten eskumen edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak, etab.

Udalek zerbitzuak zuzenean edo zeharka eman ditzakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo tokiko entitate autonomoak, merkataritzako sozietae publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

### A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2020ko ekitaldirako aurrekontua 2020ko otsailaren 27ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean martxoaren 10ean eman zen argitara. Udalaren iritziz, Covid-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoera zela eta, entzunaldi-izapidea ezin zen betetzat jo, eta ekainaren 1ean hasierako onespenari buruzko beste iragarki bat argitaratu zuen. Hil bereko 25.ean Udalbatzak Aurrekontua behin betiko onartzea erabaki zuen, aurkeztutako erreklamazio bakarra ezetsi ondoren, eta erabaki hori BAOn argitaratu zen 2020ko uztailaren 23an.

Hona hemen, 2020ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	KREDITU GEHIKUNTZA	KREDITU TRANSFER.	KREDITU GAIKUNTZA	KREDITU OSAG.	Euroak milakotan	
					GUZTIRA	
1. Pertsonaleko gastuak.....	3	-	-	-	3	
2. Ondasun korronteko eta zerbitz. gastuak .....	16	11	33	28	88	
3. Gasto finantzarioak .....	-	2	-	-	2	
4. Transferentzia korronteak .....	-	-	-	80	80	
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabekoak.....	-	(71)	-	-	(71)	
6. Inbertsio errealak.....	766	42	933	375	2.116	
9. Pasibo finantzarioak .....	-	16	-	-	16	
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>785</b>	<b>-</b>	<b>966</b>	<b>483</b>	<b>2.234</b>	

Adierazitako aurrekontuko ia aldaketa gehienak Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta finantzatu ziren 2019ko ekitaldi itxieran, Transferentzia korronteen eta kapital-transferentzien bidez eta hirigintza-jardueratik eratorritako diru-sarreren bidez (1,3 milioi euro, 625.938 euro eta 339.928 euro, hurrenez hurren).



Ekitaldian aurrekontua aldatzeko hamabi espediente izapidetu ziren eta horietako hamaika Alkatetza Dekretu bidez onartu zituzten; gainerakoa, berriz, Udalbatzara eraman zen onartzeko. 4,4 milioi euroren hasierako aurrekontua % 51 gehitu zen eta behin betiko aurrekontua 6,6 milioi eurora iritsi zen. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Zubiaurrealde auzoko 42 eta 43 zenbakien ingurua urbanizatzea (*).....	199
Sabino Arana plazako lurpeko aparkalekua konpontzea .....	141
HAPO (ikus A.12).....	114
Bakea parkean jolasgune bat eskuratu eta instalatzea.....	63
San Pelaio kalean komun publiko autogarbigarría eskuratu eta instalatzea .....	60
Beste txiki batzuk.....	208
<b>KREDITU GEHITUAK GUZTIRA</b>	<b>785</b>
Haize bortitzek 2019ko azaroan eragindako kalteak (ikus A.4).....	419
Solozarreko Plan Partzialeko 8. partzelaren jabeen hitzarmena (ikus A.12).....	340
Eguzki-instalazio termikoa udal-igerilekuetan (ikus A.4 eta A.13) .....	95
Estepona ibai. inguruan padura eta urak har dezakeen barruko basoa sortzea.....	80
Beste txiki batzuk.....	32
<b>KREDITU GAIKUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>966</b>
Ibarratorre kalea urbanizatzea (ikus A.13) .....	250
COVID-19ak eragindako krisiaren inpaktua arintzeko laguntzak (ikus A.7) .....	80
Beste txiki batzuk.....	153
<b>KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA</b>	<b>483</b>

(\*) Fiskalizazio-gai den ekitaldi itxieran egikaritzen hasi gabeko proiektua.

2020ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2021eko martxoaren 30eko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra urte bereko uztailaren 29ko Udalbatza bitartez.

### Sabino Arana plazako lurpeko aparkalekua konpontzea

2012ko irailean, lurpeko aparkaleku baten jabeen erkidegoak administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri zuen, eta Udalaren eta enpresa kontratista baten kondena solidarioa eskatu zuen, aipatutako aparkalekuaren zeuden ur-iragazketak eta hezetasunak erabat konpondu eta bideratu zitzaten.

Martxoaren 17ko 66/2015 Epaiak, urte bereko maiatzaren autoaren bidez osatutakoak, demanda osoa baiesten du, eta lehen aipatutako Udalaren eta enpresa kontratistaren erantzukizun solidarioa ezartzen du aparkalekuko eraikuntza-akatsak konpondu eta bideratzeko. Obren kostua 141.005 euro da, espedientearen ageri den peritazioaren arabera.

Enpresari dagokionez, egikaritzatik banandutako atal baten bidez, bere jabetzakoak diren zenbait lurzati enbargatzea eta gauzatzea eskatzen da. Jabeen erkidego demandatzaleak 89.657 euro jaso ditu 2021eko urtarrilean, horretarako egindako enkantearen erremate gisa.



Udalari dagokionez, 2012-2027 aldiko gastuak eta diru-sarrerak onartutako doikuntza-planari lotu beharrak (ikus IV. atala) eta diru-sarrera handiagoak izanez gero bertan aurreikusitako helburuetara bideratu behar izateak zaildu egin dute epaia betearaztea, eta hori dela eta, 2016, 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldietan ez da inolako aurrerapenik egin.

2020ko abenduaren 30ean Alkatzaren Dekretua ematen da eta demandatzaileei 78.003 euro ordaintzeko agintzen da epaiari aurre egiteko, 2020ko udal-aurrekontuaren kargura, nahiz eta zenbateko hori 2021era arte ez den gastu gisa erregistratu (ikus II.2 atala). 2022ko apirilaren 29an, Udalak hitzarmen bat sinatu du jabeen erkidegoarekin, eta konpromisoa hartu du konponketaren azken kostuaren eta prozesuko gastuen % 50 bere gain hartzeko, auzibidea amaitutzat emateko. Jada ordaindutako zenbatekoa obren kostu zenbatetsiaren % 50i dagokio (70.503 euro), eta 7.500 euroko aurrerakina prozesuaren kostuei eta gastuei aurre egiteko, Procedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 241. artikuluaren definizioaren arabera.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2020ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrerengatik kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	895
TMIZ .....	184
HBGZ.....	68
JEZ.....	8
<b>ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA</b>	<b>1.155</b>
EIOZ .....	129
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>129</b>
Zaborrak bildu eta desegite-zerbitzuaren tasa eta estolderia tasa.....	418
Bide publikoetan trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatzeagatiko tasak .....	208
Lurraren, lur azpiaren edo airearen aprobetxamendu berezia enpresa hornitzaleen alde .....	42
Beste txiki batzuk .....	112
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>780</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>2.064</b>

BFAk Bakioko Udalari honako zerbitzuok ematen dizkio: OHZ eta JEZ kudeatu, likidatu, ikuskatu eta bildu -bai borondatezko aldean, bai premiamendukoan-, lankidetza-hitzarmenen indarrez.

2012ko maiatzean, Udalak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari laga zion edateko ura banatzeko tokiko bigarren sarearen kudeaketa, mantentzea, ustiapena eta birjartzea, eta udalaz gaindiko erakundeak bere gain hartu zituen zerbitzuaren diru-sarrerak eta gastuak; horregatik ez dira kontabilitatean erregistratzen. Partzuergoak, gainera, zabor eta estolderia tasen kobrantza kudeatzen du.



Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartu du horien kudeaketa borondatezko aldian eta 2015eko otsailaz geroztik lankidetza-hitzarmen bat du BFArekin betearazte bidean diru-bilketa egiteko. Udalak, gainera, isunak kudeatzeko lankidetza- eta laguntza-kontratu bat dauka kanpoko enpresa batekin.

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2020ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza korronte eta kapitalezkoengatik kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	KORRONTEAK	KAPITALEZKOAK
Estatuarenak	4	-
EErenak	43	-
Osakidetza-euskal osasun zerbitzua entea Medikuaren kontsulta mantentzeko lanak.....	18	-
AO: Jarduera fisikoaren arloko orientazio-zerbitzuak (Mugiment) .....	10	-
Beste txiki batzuk .....	15	-
BLHrenak	1.796	419
BFA: Ituneko zergetan partaidetza (Udalkutxa).....	1.784	-
BFA: Ezustekoak (2019ko azaroan haize bortitzek eragindako kalteak) .....	-	324
BFA: Eguzki-instalazio termikoa udal-igerilekuetan.....	-	95
BLHren askotariko beste dirulaguntza batzuk.....	12	-
Enpresenak (*)	10	94
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.853</b>	<b>513</b>

(\*) Ez dira dirulaguntzek eragindako diru-sarrerak. Zenbatekorik esanguratsuena, 93.524 euro, aseguru-etxe batek 2019ko azaroan haize indartsuek eragindako kalteengatik emandako kalte-ordinari dagokio. Kalte-ordinain horren zati bat, 83.962 euro, atxikitako finantzaketaren soberakinen kalkuluan sartu da, nahiz eta duten izaeragatik helburu jakin batzuei lotuta ez dauden diru-sarrerak diren (ikus II.2 atala).

Itunpeko zergetako partaidetzari dagokionez, adierazi behar da Udalkutxaren 2020ko likidazioa, BFAren aldeko 95.660 euroren saldokoa, erregistratzeko dagoela, BFAk egindako kontabilizazio-gomendioak jarraikiz.



## Bestelako dirulaguntzak

Gainera, Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuak finantzatzeko beste dirulaguntza batzuen titularra da Udala. Aipatutako erakundeak zuzenean jasotzen ditu funtsak, eta erakunde horrek erregistratzen ditu dagozkion sarrerak eta gastuak kontabilitatean. Hona hemen dirulaguntza horien xehetasunak, 2020ko ekitaldian:

		Euroak milakotan
	ERAKUNDE DIRU-EMAILEA	
XEDEA	ESTATUA	BFA
SAAD eta Gizartekutxa .....	-	42
Gizarte Zerbitzuen Karteraren aparteko funtsa.....	-	9
Covid-19tik eratorritako egoeretarako Aparteko Gizarte Funtsa .....	5	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>5</b>	<b>51</b>

## A.5 PERTSONALEKO GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2019ko eta 2020ko ekitaldietako Aurrekontuaren likidazioan, LZn jasotako lanpostu kopurua eta plantilla 2020ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	AITORT. 2020	AITORT. 2019	Euroak milakotan		
			LANPOSTU KOP.		
			OBLIGAZ.	OBLIGAZ.	20/12/31n
UDALKIDEEN ORDAINSARIAK	32	31	E/E	1	1
Funtzionarioen ordainsariak .....	595	556	18	(1)	18
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	50	50	2	1	
Aldi baterako lan kontratuko langileen ordainsariak.....	285	285	E/E	(2)	11
Gizarte Segurantza .....	297	287			
Beste gizarte-gastu batzuk .....	21	28			
<b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>1.280</b>	<b>1.237</b>	<b>20</b>	<b>31</b>	

(1) bitarteko 6 funtzionario barne hartzen ditu.

(2) Lanbideko enplegu planen bitartez kontrataturiko 3 pertsona barne hartzen ditu.

## Ordainsariak

2020ko ekitaldian ez da soldatu igoerarik izango, Udala lanpostuak baloratzeko prozesu batean baitago. Balorazio horren ondoriozko lanpostu-zerrenda Udalbatzak onartu zuen 2021eko uztailaren 29an, 2020ko urtarriaren 1era arteko atzeraeraginarekin. Udalak berak egindako kalkuluen arabera, langileei 2020ko ekitaldiari dagozkion ordainsariengatik ordaindu beharreko atzerapenak, akordio horren eta aplikatu gabeko soldatu-igoeraren ondoriozkoak, 76.887 euro inguruoa dira (ikus II.1 atala).



## LZ eta plantilla

2020ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	ALTAK	BAJAK
Bitarteko funtzionarioak.....	14	13
Aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	15	14
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	3	3
<b>GUZTIRA</b>	<b>32</b>	<b>30</b>

Bitarteko funtzionarioen altei eta bajei dagokienez, 2020an udalzaingoan eta administrazioko langileen plantillan zeuden defizitak arintzeko kontratatutako errefortzuko langileei dagozkie. 2021eko uztailean onartutako lanpostu-zerrendak langile defizit horiek betetzeko dotazioak jasotzen ditu.

Aldi baterako lan-kontratudun langileen altei eta bajei dagokienez, gehienak 2020ko abenduan kontratatutako laguntzaileak dira, ekitaldi jakin batzuk egiten laguntzeko, osasun-krisiaren ondorioz aplikatu beharreko aparteko neurriak direla-eta.



## A.6 ONDASUN KORRONTEEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunten eta zerbitzuen kontrataazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	OBLIGAZIO AITORTUAK
<b>Errentamenduak</b>	<b>43</b>
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	317
Ondasun naturalenak (*).	181
Eraikin eta bestelako eraikuntzak .....	90
Beste ibilgetu bat.....	46
<b>Bulegoko materiala</b>	<b>19</b>
Hornidurak	235
Energia elektrikoa (*).....	144
Erregaiak.....	39
Bestelako hornigaiak.....	52
Komunikazioak	33
Aseguru-primak	23
Hainbat gastu	167
Jarduera soziokulturalak.....	130
Bestelako hainbat gastu.....	37
<b>Kanpoko enpresek egindako lanak</b>	<b>1.006</b>
Bakioko kirodegiko kirol-jardueren planifikazioa eta garapena (ikus A.13).....	201
HHSen kudeaketarekin loturiko zerbitzuak.....	192
Ibilgailuen aparkalekuaren kontrola, mugaketa eta antolamendua (ikus A.13).....	143
Udal eraikinen garbiketa .....	83
Lorategi-zerbitzuak .....	66
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk .....	321
<b>Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak</b>	<b>5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.848</b>

(\*) Horren baruan sartzen dira energia-zerbitzuen kontratuari dagozkion gastuak, argiteria publikoko instalazioen mantentze-lanak eta berme osoa barne, 133.844 euroan (ikus A.13).



## A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2020ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta dirulaguntza korronteak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	<b>89</b>
Gizarte Zerbitzuetarako Mungialde Partzuergoa (*).....	71
Udalerrirako Mankomunitatea (UEMA).....	7
Jata-Ondo Landa Garapenerako Elkartea .....	6
Talde politikoei transferentziak (*).....	4
Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL) .....	1
<b>LEHIA</b>	<b>48</b>
Covid-19ak eragindako krisiaren inpaktu ekonomikoa arintzeko laguntzak (*).....	48
<b>ZUZENAK</b>	<b>1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>138</b>

(\*) Aztertutako transferentziak eta dirulaguntzak.

## A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA AKTIBO EZ-KORRONTEA

Hona hemen Udalaren aktibo ez korronteko kontuen 2020ko kontu-mugimenduak:

	Euroak milakotan	
	SALDOA 20/01/01	SALDOA 20/12/31
<b>KONTZEPTUA</b>		
<b>IBILGETU UKIEZINA</b>	<b>3.049</b>	<b>51</b>
Inbertsioa ikerketan eta garapenean .....	1.952	17
Jabetza industriala eta intelektuala .....	317	34
Beste ibilgetu ukiezin bat .....	780	-
<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>36.229</b>	<b>216</b>
Lursailak eta ondare naturalak.....	623	-
Eraikuntzak.....	18.313	58
Azpiegiturak .....	770	107
Makineria eta lanabesak.....	1.234	1
Instalazio teknikoak eta best. instalazio b.....	2.846	-
Altzariak .....	809	-
Beste ibilgetu material bat.....	1.401	50
Abian dagoen ibilgetu materiala eta aurrerakinak.....	10.233	-
<b>LOP</b>	<b>103</b>	<b>-</b>
<b>EPE LUZEKO INBERTSIO FINANTZARIOAK</b>	<b>9</b>	<b>-</b>
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA</b>	<b>39.390</b>	<b>267</b>
		<b>39.657</b>

Ibilgetuaren saldoetako aldaketak automatikoki erregistratzen dira dagozkien aurrekontu-kapituluetan kontabilizatutako inbertsioekin eta, hala badagokio, besterentzeekin bat etorriz, eta erregistratu gabe geratzen dira aurrekontu-gasturik edo -sarrerarik eragiten ez duten egitate ekonomikoen ondoriozko altak edo bajak, hala nola hirigintza-jardueratik



eratorritako nahitaezko dohaintzak edo doako lagapenak. Ez da ibilgetua amortizatzeko zuzkidurari egin.

Balantzko "Ibilgetuko inbertsioak" idazpuruan ere ez dira banakaturik jaso udal jabetzako ondareko ondasun higiezinak, zeinetatik dirusarrerak eskuratu baitira hirugarrenen aprobetxatu, erabili edo gozatzeagatik; alabaina, 2020ko ekitaldian ondasun higiezinen errengai dagozkien eskubide aitortuak jaso dira; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
<b>ONDASUN HIGIEZINEN ERRENTAK</b>	<b>4</b>
Hiri finken errentamenduaren produktua .....	3
Landa finken errentamenduaren produktua.....	1
<b>ADMINISTRAZIOKO EMAKIDAK</b>	<b>320</b>
<b>ONDARE SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>324</b>

2013ko martxoan, Udalak jabari publikoko emakida-kontratu bat sinatu zuen Azpiegiturak S.A.rekin, 75 urterako, Txakolinguera izeneko udal-higiezinarri dagokionez, museo- eta kultura-garapena eta enpresa- eta berrikuntza-espazioa egiteko. Emakidaren prezioa 3,2 milioi euroan ezarri zen, urteko 10 ordainketatan ordaintzeko, bakoitzak 320.000 eurokoa, eta lehenengoa hitzarmena sinatzean. Erantsitako koadroan 2020. urteari dagokiona ageri da.

## A.9 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

ERAUNDEA	% INTERESA	EPEMUGA	Euroak milakotan		
			20/01/01	AMORT.	SALDOA 20/12/31
Caixabank S.A.....	Euríbor 3 hilabete + 1,6	2020	14	14	- -
Caixabank S.A.....	Euríbor 1 urte + 1,9	2027	425	50	- 375
Banco Bilbao Vizcaya S.A .....	Euríbor 1 urte + 1,9	2027	233	27	- 206
